

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

#### **Kobratzea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga, 2021ekoa**

Jakinarazten da ireki dela landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2021eko ordainketak egiteko aldia.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea:

2021eko urriaren 15etik abenduaren 15era.

Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz, eta hori 2021eko azaroaren 3an egingo du.

B) Premiamendu aldia:

2021eko abenduaren 16tik aurrera, premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiko da, eta bidezkoa den errekargua aplikatuko da (Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikulua).

C) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek borondatezko epean baino ezin izango dute ordaindu, Kutxabanken eta banku transferentzia bidez. Horretarako, aldezturik, ordainagiria jaso beharko dute udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.

COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, hitzordua eskatu beharko da aldezturik, 945337059 telefonora deituta edo [aberantevilla.secretaria@ayto.araba.eus](mailto:aberantevilla.secretaria@ayto.araba.eus) posta elektronikora idatzita.

II. Gomendioak.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Berantevillako Udalarari horren berri eman behar zaio, baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, hurrengo jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2021eko irailaren 1a

*Alkatea*

*MARIO PEREA ANUNCIBAY*